El **amarre** era otro capítulo importante. Las riberas de la ría carecían de estacas fijas o *pajones*, por eso establecieron que cada dueño de navío pusiera uno de buena madera de roble y lo conservara en el tramo comprendido entre el Pozo de los carros en Lavalle y la iglesia de San Julián, así como en el ribero de Pobeña, para que pudieran amarrar los bajeles. Estaba prohibido que los venateros descargasen junto a estos *pajones*, debiendo guardar una distancia mínima de "dos piernas" (pasos) entre las pilas de vena y las estacas porque, si dejaban la carga demasiado cerca, los cantos rozaban y estropeaban los cables de las naves y se iban rodando a los canales. Como consecuencia, el canal se iba rellenando, el dueño del carro o mula perdía parte de su carga y algunos carreteros y arrieros dejaban maliciosamente la carga cerca del agua para que se mojase y aumentara de peso.

Ordenar el tráfico fluvial en un canal tan estrecho como este era otro de los cometidos de las ordenanzas. Se daba preferencia a los barcos cargados frente a los vacíos, que debían apartarse para dar paso a aquellos. Por otro lado, ningún bajel podía permanecer en el puerto más de tres pleamares, incluyendo las de entrada y salida.

Cayaje (derecho de uso de la ría y sus instalaciones). Las ordenanzas establecían una contribución en ese concepto para cada navío por cada viaje de vena que hiciese. La tasa era proporcional a la envergadura de la nave, que se medía según las gaviás o velas que tuviesen –dos, una o ninguna– y los navíos forasteros pagaban más que los naturales del concejo. El dinero recaudado se destinaba a reparos, construcción y conservación de los canales y muelles. El responsable de exigir el pago era, de nuevo, el Mayordomo, y a quienes se negaran, debía quitarles las velas y aparejos hasta que lo abonasen.

Actividad nocturna. Las normas eran muy claras y prohibían la actividad nocturna en los muelles. Solo se permitía cargar vena de día y en presencia de las personas que controlaban el pesaje del mineral. De esta forma se pretendía evitar los frecuentes "levantamientos" de venas ajenas, aprovechando la ausencia de los renteros. Para pesar la carga contaban con balanzas que se custodiaban en la iglesia de San Julián, beneficiaria del rentaje y en cuyos libros de fábrica se recogen con frecuencia los gastos relativos a la fabricación, conservación y calibración de las mismas.

La seguridad no era una preocupación menor y se extendía a diferentes ámbitos. Las Ordenanzas acotan los tiempos de navegabilidad y nos describen las medidas que tuvieron que adoptarse para evitar los accidentes ocasionados por llevar los barcos mal aparejados o por salir durante el invierno con bajeles poco preparados para la bravura de los mares, lo cual comportaba grandes pérdidas humanas y de bienes. Pero no había que protegerse solo de la mala mar. La presencia de navíos franceses, ingleses y holandeses, que rondaron nuestra costa en diferentes momentos durante los siglos XVII y XVIII, podía ser una amenaza aún mayor. Frente a ella era necesario organizar una defensa, reforzando las guardas o atalayas para evitar que en tiempo de guerra los corsarios apresasen los bajeles. En nuestro entorno, estas se ubicaban en el islote de San Pantaleón, Campomar y Punta Lucero.



San Juliango talaiaitik

JUAN MANUEL GONZÁLEZ CEMPELLÍN

Desde la atalaya de San Julián

JUAN MANUEL GONZÁLEZ CEMPELLÍN

Eliza, kontzejua, nabigatzaileak, portua... eta patronoak

Don Sancho Ortiz Marroquín fue criado desde pequeño de don Diego López el Bueno, Señor de Vizcaya. E por muchos serviçios que le fizo en toda su moçedad, espeçialmente en la batalla... de las Navas de Tolosa, diole los monesterios de Sant Julián de Musques e de Sant Román de Çierbena e la prebostad e peaje del puerto de Sant Martín, que son en Somorrostro.

1212. urte inguruan gertatu zen hori. Antso Ortiz Marrokinek San Juliango monasterioa jaso zuen, besteak beste. Edo, beste era batera esanda, elizaren patronatua: hark kobratuko zituen elizaren hamarrenak, eraikina mantentzearen eta hango apaizei ordaintzearen truke. Patronatua ez zen ekonomia kontu soila. Patroiak izendatzen zituen elizako apaizak, eta horrek aukera ematen zion bere aldekoak edo senideak izendatzeko eta, bide horretatik, fededunen gaineko kontrol soziala ezartzeko; pulpitutik, erraza zen jendea doktrinatzea, eta, hala behar izanez gero, Jainkoaren justiziaren bidez zigortzea, garai hartan justizia zibila bezain eraginkorra baitzen. Eta patroiak bere gizarte nagusitasunaren erakusleho modura baliatzen zuen eliza: haren armariak ageri ziren horma edo erretauletan, aldaretik hurbi-leneko eserlekua zuen, hark hartzen zuen jauna aurrea eta buru joaten zen prozesioetan. Hala, bada, ez zen diru kontu soila: jauntxoek kontrolarekin eta irudiarekin ere zerikusia zuen. Eta hori funtsezkoa zen Erdi Aroaren amaierako leinuetako ahaide nagusientzat. Handik gutxira, Muñatones etxearen esku gelditu zen patronatua, ezkontza bidez, eta ondoren eskuratu zuten Salazar etxeok eta, amaitzeko, Villariasko markesek.



J. E. Delmasen grabatua;
Muñatonesko Gaztelua
irudikatzen da, eta, atzean, San
Juliango eliza (1846).

Grabado de J. E. Delmas en el
que se representa el Castillo de
Muñatones y, al fondo, la iglesia
de San Julián (1846).

San Juliangoa zen, garai hartan, udalerriko parrokia bakarra. Eta herritar guztientzako erreferentzia. Identitate ikurra. Hain zuzen ere, hark ematen zion izena herriari berari: *Conçejo de San Julián de Muskiz*. Bertan egiten ziren auzo batzarrak eta garrantzizko ekitaldi publikoak. Esaterako, 1716an herritarrek Lavallean portuaren erabilerari buruzko ordenantzak idazteko egindako bilkura:

en el puesto del Cruzero de este conzejo de San Julian de Musques... que es el sittio lugar donde tienen de costumbre de ynmemorial tiempo a esta parte juntarse los vezinos cavalleros escuderos hijosdalgo de dicho conzejo para tratar y comferir las cossas combenientes a el servizio de Dios nuestro señor y de la cattholica y real magestad nuestro rey y señor (y al) vien y utilidad de los dichos vezinos.

Iglesia, concejo, mareantes, puerto... y patronos

Don Sancho Ortiz Marroquín fue criado desde pequeño de don Diego López el Bueno, Señor de Vizcaya. E por muchos serviçios que le fizo en toda su moçedad, espeçialmente en la batalla... de las Navas de Tolosa, diole los monesterios de Sant Julián de Musques e de Sant Román de Çierbena e la prebostad e peaje del puerto de Sant Martín, que son en Somorrostro.


Sucedía esto hacia 1212. Sancho Ortiz Marroquín recibía entre otras cosas el *monesterio* de San Julián. O lo que es lo mismo, el patronato de la iglesia: él cobraría los diezmos del templo a cambio de mantenerlo y pagar a sus curas. Pero el patronato no era solo una cuestión económica. El patrón era quien nombraba a esos curas, lo que le permitía colocar como tales a partidarios o familiares, facilitando el control social de sus feligreses: desde el púlpito era fácil adoctrinar y, si fuera necesario, condenar con la justicia divina, por aquel entonces tan eficaz como la civil. Y el patrón utilizaba la iglesia como escaparate de su preeminencia social: sus escudos estaban en las paredes o retablos, su asiento era el más próximo al altar, él era el primero en tomar la comunión y en las procesiones... Así pues, no solo era dinero: era también control y representación del poder señorial. Algo fundamental para los parientes mayores de los linajes al final de la Edad Media. Muy pronto el patronato pasaría, por vía matrimonial, a los Muñatones, de estos a los Salazar y finalmente a los marqueses de Villarias. Estos dos últimos, por cierto, propietarios sucesivos de la Ferrería de El Pobal.



San Juliango elizaren ikuspegia, erriberetatik; han zegoen Lavallean portua.
Vista de la Iglesia de San Julián desde las riberas donde se situaba el puerto de Laval.


La de San Julián era entonces la única parroquia del municipio. Y el referente para toda su población. Su signo de identidad. De hecho, era la que daba nombre al pueblo: era el *Conçejo de San Julián de Muskiz*. En ella se realizaban las asambleas vecinales y los actos públicos importantes. Como cuando en 1716 se reunieron los vecinos para redactar las ordenanzas sobre el uso del puerto de Laval:

en el puesto del Cruzero de este conzejo de San Julian de Musques... que es el sittio lugar donde tienen de costumbre de ynmemorial tiempo a esta parte juntarse los vezinos cavalleros escuderos hijosdalgo de di-




San Juliango elizaren aurrean dagoen gurutzea 1550 inguruko harribitxi errenazentista da.

El crucero que se alza a los pies de la iglesia de San Julián es una joya renacentista de hacia 1550.



Kristo gurutziltzatua, eta azpian, seguru asko, San Julian.

Cristo crucificado y bajo él, posiblemente, San Julián.



Santa Maria, eta azpian, seguru asko, Santa Basilisa.

Santa María y bajo ella, posiblemente, Santa Basilisa.

Garai hartan, *Cruzero* ez zen gaur egun izen hori daraman tokia, San Juliango elizaren oinetan dagoen gurutzea baizik. 1550 inguruko lan bat, zeinetan ageri baitira, Kristoren eta Ama Birjinaren ohiko irudien azpian, beste bi pertsonaiaren irudiak: agian, San Julian bera eta haren bikotekide Santa Basilisa. Han zuen egoitza, halaber, udalerriko erakunde ekonomiko nagusiak: *Cofradia de Mariantes de el Señor San Nicolas, sita en la yglesia parrochial de este consejo*. Herriko gainerako parrokiak, San Juan del Astillero eta Pobeñako San Nikolas, askoz ere beranduago eraiki zituzten, XVIII. mendean. Eta benetako premia erlijioso batek bultzatuta baino gehiago, la Quadra etxeokoei –sustatzaileek– Salazar etxeokoei gizartearen gailen agertzeko zeukaten lehiagatik eraiki zituzten: izan ere, etxe hartakoei ere nahi zuten eduki «beren» eliza. Baina eliza berri haiek gorabehera, San Julian izan zen aurrerantzean ere eliza nagusia, besteen buru zegoena.

Patronoen ardura zen eraikina eta hango apaizak mantentzea, baina, dirudienez, Salazar etxeokoei ez zituzten betebeharrak oso zuzen betetzen. Fededunen eta Udalaren kexa asko izan ziren, salatuz eliza utzita zegoela, eta apaizak ere soldatari loturiko gorabeheraz kexu agertu ziren, maiz auzitara iristeraino. Hain zuzen ere, 1720an, korregidoreak –gobernadore zibilararen moduko kargua zuen– eliza ikuskatzeko agindu zuen, eta, (*hallose que estava en el mas miserable estado, y con una suma indecencia*), agindu zuen hamarrenen bi heren bahitzea, eliza konpontzeko.

Kontzejua, bestalde, saiatu zen tenplua mantentzen laguntzen. Dirudienez, parrokiari laga zion bere diru iturrietako bat 1600 inguruan: Lavalako portuaren errentamendua. Hau da, portuaren bidez esportatzen zen burdin minerala pisatzeagatik kobratzen zena. Horretarako, bi balantza zituen parrokiak han, beti prest. Udalak XIX. mendearen erdialdean berreskuratu zuen eskubide hura, Elizaren gogoz kontra.

Baina patronoekiko auziak ez ziren elizaren eta apaizen mantenuari buruzkoak soilik izan. Auzokoei nahiz elizgizonei jasangaitzak gertatzen zitzaizkien Salazar etxeokoen ohoak eta gailentasuna. Batez ere, ez zuten begi onez ikusten familiaren titularrak jarleku berezi bat izatea gainerako eliztarrek esertzen ziren bankuak baino gertuago presbiteriotik –edo, bestela esanda, Jainkoarengandik–.

cho conzejo para tratar y comferir las cossas combenientes a el servzio de Dios nuestro señor y de la cattholica y real magestad nuestro rey y señor (y al) vien y utilidad de los dichos vezinos .

El *Cruzero* no era entonces el lugar que hoy lleva ese nombre, sino la cruz que aún se alza a los pies de la iglesia de San Julián. Una obra de hacia 1550 en la que bajo las habituales imágenes de Cristo y la Virgen aparecen las de otros dos personajes, quizás San Julián y su compañera Santa Basilisa. Y la iglesia era también sede de la principal institución económica del municipio: *la Cofradia de Mariantes de el Señor San Nicolas, sita en la yglesia parrochial de este conzejo*. Las otras parroquias del pueblo, San Juan del Astillero y San Nicolás de Pobeña, se construirían mucho más tarde, ya en el siglo XVIII. Y más que por una verdadera necesidad religiosa fueron levantadas por una competencia por la preeminencia social de los la Quadra –sus promotores– con los Salazar: aquellos también querían tener «su» iglesia. Pero a pesar de estos nuevos templos, San Julián siguió siendo la iglesia matriz, la cabecera de la que dependían las otras.



Muskizko Kontzejuaren mendeetako bilgune enblematikoa izan zen San Juliango gurutze azpian modu lasaian pausatzen ari diren bertakoen irudia.


Estampa de unos lugareños posando de forma distendida bajo el crucero de San Julián, punto emblemático de reunión del Concejo de Muskiz durante siglos.

Los patronos debían sostener el edificio y a sus sacerdotes, pero parece que los Salazar no llevaban muy bien estas obligaciones. Las quejas de la feligresía y el Ayuntamiento sobre el descuido de la iglesia y de los curas sobre sus sueldos fueron habituales, llegando frecuentemente a los tribunales. De hecho, en 1720 el corregidor –una especie de gobernador civil– ordenó la inspección del templo y *hallose que estava en el mas miserable estado, y con una suma indecencia*, por lo cual ordenó *el secuestro* de dos tercios de los diezmos para poder repararlo.

El Concejo, por su parte, trató de ayudar a mantener el templo. Parece que hacia 1600 cedió a la parroquia una de sus fuentes de ingresos: el rentaje del puerto de Laval. Es decir, lo que se cobraba por pesar el mineral de hierro que se exportaba a través del puerto. Para ello la parroquia tenía allí dos balanzas que se ocupaba de mantener siempre a punto. Este derecho sería recuperado por el municipio a mediados del XIX, no sin oposición por parte de la Iglesia.

Berez, egia esan, halaxe izaten zen patronatuko eliza guztietan. Baina San Julianen, absidean bertan zegoen jarlekua, apaizen jarlekuen altuera berean, eta hori ez zen batere ohikoa. Izan ere, tenpluaren burualdea hain txikia izanik, bete egin behar izan ziren presbiterioa kokatuta zegoen tokiko eskailera mailak, plataforma bat sortzeko eta plataforma horren gainean kokatzeko delako jarlekua, segurtasun osoz (*con toda seguridad y desengaño*). Eta, gainera, oholtza bat zegoen haren ondoan, alfonbra batez eta burkoez hornitua, non leinuko emakumeak etzaten baitziren –ez eseri– moriskoen modura. Guk dakigula, ez zegoen halakorik Bizkaiko beste inongo elizatan.

Hala, 1649an, agintariek eta auzotarrek bat eginik, jarlekua eta oholtza kendu, eta errotulu bat jarri zuten ate baten gainean, beren burua patroiz izendatuz (*un rretulo sobre una puerta por de dentro llamándose patronos*). Hain zuzen ere, honela zioen errotuluak: *"Esta yglesia y sus capillas an fabricado y sustentado desde su primera fundación asta oy los vecinos deste Conçejo como dueños della"*. Beraz, zalantzan jar-tzen zuten Salazarkoen patronatua. «Jabetza egintza» gisa, kontzejuaren armarria margotu zuten tenpluko hormetan: hiru dorreko gaztelu bat, txakur bat duena atetik zintzilik, alde batean lehoi zutitu bat eta bestean beste lehoi bat edo bi otso zuhaitz baten gainean –Bizkaiko armarrian bezala–, eta, erremate gisa, koroa bat eta garrote bat. Orobat margotu zuten oinaldeko atearen gainean beste armarri bat, itsasontzi altu bat irudikatzen zuena bergak gora jasota. *Cofradia de Mariantes de el Señor San Nicolas* kofradiaren ikurra bide zen, seguru asko. Gainera, burualdean gehitu zuten San Pedoren armarria, elizaren babesa eskatuz agian: lauki eta hondo zurian, bi giltza, gainean dutela mitra bat (*en quadro y campo blanco dos llaves y una mitra encima*).



Muskizko udalerriak XIX. mendearen erdialdera berreskuratu zuen Lavalleko portuaren "errentatzea"; ordura arte, elizaren esku zegoen. Aldaketa-testuinguru horretan sartzen da José Ramón de Momeñeren erreklamazioa –San Juliango auzotarra bera–.

El municipio de Muskiz recuperó a mediados del siglo XIX el "rentaje" del puerto de Lavalle, hasta entonces, en manos de la Iglesia. Es en este contexto de cambio en el que se sitúa la reclamación de José Ramón de Momeñe, vecino de San Julián.

Irain hura zela eta, Salazar etxekoek salaketa jarri zuten, eta epaile ikertzaile bat (*juez pesquisidor*) bidali zuten Valladolideko Kantzelaritzatik, Bizkaiko auzietarako auzitegi nagusitik. Epaileak arrazoiak eman zion leinuari, eta gogor zigortu zituen ustezko erantzuleak, udaleko kideak. Antso Musquesi 100.000 marabediko isuna jarri zioten –dirutza itzela–, eta lau urteko erbesteratzea Somorrostrotik lau legoara (22 kilometro inguru). Beste bost bizilagunek 10.000 marabedi ordaindu behar izan zituzten, eta bi urteko erbestealdia jasan bi legoa baino gehiagora; beste hiruk, 6.000 marabedi ordaindu eta Muskiztik urtebetez erbesteratu. Gainera, epaiketaren kostuak ordaindu behar izan zituzten, eta ez ziren merkeak izango. Zigor ereduagarria, zinez.

Pero los litigios con los patronos no sólo afectaban al mantenimiento de templo y sacerdotes. Ni el vecindario ni el clero soportaban los *honoros y preminencias* de los Salazar. Sobre todo, no veían con buenos ojos la existencia de una silla especial para el titular de la familia, más cercana al presbiterio –o lo que es lo mismo, a Dios– que los bancos donde se sentaba el resto de la feligresía.

Esto en realidad era común a todas las iglesias de patronato. Pero es que en San Julián el asiento estaba sobre el mismo ábside y a la misma altura que las sillas de los curas, algo nada habitual. De hecho, y dado el reducido tamaño de la cabecera del templo, se habían tenido que rellenar los escalones sobre los que se elevaba el presbiterio para crear una plataforma sobre la que asentar *con toda seguridad y desengaño* la silla en cuestión. Y además junto a ella había una tarima o estrado con alfombra y almohadas donde se colocaban las mujeres del linaje reclinadas, a la moda morisca –no sentadas–. Algo que no sabemos que hubiera en ningún otro templo vizcaíno.

Así que en 1649 autoridades y vecindario unidos retiraron silla y tarima y pusieron *un rretulo sobre una puerta por de dentro llamándose patronos*. En concreto el rótulo decía: *Esta yglesia y sus capillas an fabricado y sustentado desde su primera fundación asta oy los vecinos deste Conçejo como dueños della*. Así pues, ponían en tela de juicio el patronato de los Salazar. Como «acto de propiedad» pintaron en las paredes del templo el escudo del Concejo: un castillo de tres torres con un perro colgado de su puerta, a un lado un león rampante y al otro lado otro león o dos lobos sobre un árbol –como en el escudo de Bizkaia–, y como remate una corona y un garrote. También se pintó sobre la puerta de los pies otro escudo que representaba *un navio altas las bergas en alto*. Probablemente era el símbolo de aquella *Cofradia de Mariantes de el Señor San Nicolas*. Además, añadieron en la cabecera el escudo de San Pedro, quizás apelando a la protección de la Iglesia: *En quadro y campo blanco dos llaves y una mitra encima*.



1802ko kanpaiak, San Julian eta Santa Basilisaren omenezkoak; jatorrian tenpluaren ko-titularra izango zen.

Campanas de 1802 dedicadas a San Julián y Santa Basilia, quien en origen sería cotitular del templo.

Ante tamaño insulto los Salazar interpusieron una denuncia y desde la Chancillería de Valladolid, el tribunal superior para los pleitos de Bizkaia, se mandó un *juez pesquisidor*. El juez dio la razón al linaje y condenó severamente a los presuntos responsables, los miembros del Ayuntamiento. A Sancho de Musques se le impuso una multa de 100.000 maravedíes –una verdadera fortuna– y cuatro años de destierro a más de cuatro leguas (unos 22 kilómetros) de Somorrostro. Otros cinco vecinos tuvieron que pagar 10.000 maravedíes y sufrir dos años de destierro a más de dos leguas, tres más, 6.000 maravedíes y un año de destierro de Muskiz. Y además tenían que pagar las costas del juicio, que no serían baratas. Un castigo ejemplar.

Y por supuesto se ordenó borrar el rótulo alusivo al patronato concejil y todos los escudos. Y recolocar la silla y la tarima. Terminado todo el proceso Antonio José de Salazar Muñatones acudió a la iglesia y se sentó en su silla, donde *estuvo un gran rato*. Sin duda disfrutó de su triunfo.

Eta, jakina, kontzejuaren patronatuari buruzko errotulua eta ezkutu guztiak ezabatzeko agindu zieten. Eta jarlekua eta oholtza berriz jartzeko ere bai. Prozesu guztia amaitu ondoren, Antonio José de Salazar Muñatones elizara joan, eta bere aulkian eseri zen, non egon baitzen denbora luzez. Zalantzarik gabe, gogotik gozatu zuen bere garaipena.

Kontu hau aipatu dugu datu garrantzitsu bat ematen digulako, berez duen interesetik haratago: udalerriko jatorrizko armaria deskribatzen digu (1900 inguruan Labayruk Muzquiz leinuaren –ez udalerriaren– berezko armari gisa deskribatzen zuena da gaur egungoa).

Ezkutu hura ezabatzeko agindu zuen epaileak... baina ez zen ezabatu. Ezkutuak igeltsuz estali ziren, eta, harrigarria bada ere, haietako bat kontserbatzen da oraindik, zati bat behintzat: koruaren gainean dago –1649an ez zegoen korurik–, hegoaldeko horman. Eta azpimarratu behar da horixe dela, Erandiokoaren eta Bilbokoaren ondoren, Bizkaian kontserbatu den udal armarririk zaharrena, herriaren historiako ikur berezia; beraz, garrantzitsua litzateke oraindik ere kontserbatzen dena berreskuratzea.

Bestalde, ezkutuak ezabatu zituzten (estali, hobeto esanda), eta jarlekua eta oholtza berriri jarri. Baina haserreak berean jarraitu zuen: behin eta berriz gertatu ziren sinbolo horien aurkako erasoak, nahiz eta Salazar etxekoek beti salaketa jarri eta auziak irabazten jarraitu. Azkenik, 1751n, Errege Kontseiluak erabaki zuen Muskizko patronatua erregearena zela, eta ez partikularrena. Berriz ere protesta egin zuten Salazarkoek, eta luze jardun zuten auzitan –Koroarekin, oraingoan–, baina ez zuten irabazterik lortu. Patrono berria erregea zen. Ez zion kontzejuari mesede handirik ekarri, halere, erregeak beste partikular batzuei eman baitzizkien patronatu eskubideak: lehenik Joan Escoiquizi, Fernando VII.aren irakasle izan zen kalonjeari, gero Salazarkoei, hiru belaunaldiz, eta, azkenik, Bilboko Misericordia Etxeari.

Bistakoa da San Juliango elizaren, kontzejuaren, auzokoen, itsasgizonen, portuaren beraren eta mineralaren esportazioaren arteko harremana. Garai hartan, alderdi erlijiosoaren eta laikoaren, pertsonalaren eta profesionalaren arteko mugak ez ziren orain bezain markatuak: tenplua guztiaren eta guztien sinboloa zen. Hala, hari sostengu ekonomikoa ematearen alde egin zuten, baina han defendatu zuten, halaber, Bizkaiko foruak berresten zuen kaparetasun unibertsalaren berdintasunezko kontzeptua, patronoek ez baitzioten, itxuraz, hari men egiten.

Kontzejuaren eta elizaren arteko identifikazioa hain izan zen estua, non kontzejuak erreklamatu baitzuen elizaren patronatua, eta markatu, bere armarriaz.



Gaur egun, armaria nabarmen hondatuta dago.

El mismo escudo en la actualidad acusa un evidente deterioro.

Nos hemos detenido en este asunto porque más allá de su interés intrínseco nos ofrece un dato importante: nos describe el primitivo escudo del municipio, (el actual es el que hacia 1900 Labayru describía como propio del linaje –no municipio– de Muzquiz).

Un escudo que el juez ordenó borrar... pero que no se borró. Los escudos fueron tapados con yeso y, sorprendentemente, aún se conserva uno de ellos, al menos en parte: podemos verlo sobre el coro –que no existía en 1649–, en la pared Sur. Y hay que destacar que, tras los casos de Erandio y Bilbao, este es el escudo municipal más antiguo conservado en Bizkaia, un símbolo para la historia del pueblo, por lo que sería importante recuperar lo que aún se conserva.

Los escudos fueron borrados, (tapados en realidad), y la silla y tarima repuestas. Pero los ánimos siguieron caldeados: los ataques contra estos símbolos se repitieron aunque siempre seguidos de pleitos que ganaban los Salazar. Finalmente, en 1751 el Real Consejo decidió que el patronato de Muskiz era propiedad real y no de particulares. Otra vez protestaron y litigaron largamente los Salazar –ahora con la Corona–, en esta ocasión sin éxito. El nuevo patrono era el rey. Pero de poco sirvió al Concejo, ya que el monarca cedió sus derechos a otros particulares: primero a Juan de Escóiquiz, canónigo que fuera preceptor de Fernando VII, después nuevamente a los Salazar durante tres generaciones, y finalmente a la Casa de Misericordia de Bilbao.

La relación entre la iglesia de San Julián, el Concejo, el vecindario, los marinos, el propio puerto y la exportación de mineral es evidente. En un tiempo en que las diferencias entre lo religioso y lo laico, lo personal y lo profesional eran menos marcadas que ahora, el templo era el símbolo de todo y de todos. Apostaron por sostenerlo económicamente, pero fue también el lugar donde defendieron el igualitario concepto de la hidalguía universal que el fuero de Bizkaia refrendaba, y que los patrones parecían no acatar.

La identificación entre Concejo y templo llegó al extremo de que aquel reclamó su patronato y lo marcó con su escudo.



Kontzejuaren armaria –tenpluaren horman 1649an margotua–, 2006an zegoen moduan. Hiru dorreko gaztelu bat ikus daiteke, lumadun koroa batek errematatua; ezkerrean, lehoi zutitu bat, eta azpian, ia ezabatuta, txakur bat zintzilik. Inguruan, lumak eta motibo geometrikoak.

Escudo del concejo, pintado en la pared del templo en 1649, tal y como estaba en 2006. Puede verse un castillo de tres torres rematado por una corona emplumada, a la izquierda un león rampante y debajo, casi borrado, un perro colgado. Alrededor plumas y motivos geométricos.

Artea eta debozioa

San Juliango elizako ateetan grabatutako itsasontzien irudiak elementu berdingabea dira Bizkaian, eta oso urria Kantauriko kostalde osoan. Horregatik besterik ez bada ere, bereziki aintzat hartzekoa zen eliza. Baina ez da hori eraikinaren balio bakarra. Alde batetik, ikusi dugu San Juliango eliza ezinbesteko elementua dela Muskizen historia uler-tzeko. Bestetik, neurriz xumea bada ere, kalitate handiko eraikina da; asmo handikoa dela esan genezake, bai arkitekturari dagokionez, bai elementu higigarriei dagokienez ere. Eta, horregatik, harrigarria gertatzen zaigu gaur egun erdi-aurri bihurtuta egotea: elizaren ia erdiak galduta ditu teilatua, gangak eta hormen zati handi bat.



Garai bakoitzak bere idazkera du. Grafiaren arabera, San Juliango inskripzio hauek estilo berantiar barrokoan kokatzen dira eta irudikatutako itsasontzien kronologiarekin bat datoz.

Cada época tiene su escritura. El tipo de grafía sitúa a estas inscripciones de San Julián en el estilo tardo barroco, que viene a coincidir con la cronología de los barcos representados.

Elizara hurbiltzean, deigarria gertatzen da eroritako zatiaren materialaren (harlandua) eta zutik dagoenaren (harlangaitz kareztatua) arteko kontrastea, nahiz eta izkinetan, ateetan eta leihoetan ere harlanduak dituen. Desberdintasun horrek aditzera ematen du fase bat baino gehiagotan eraiki zutela eliza. Aurreratu dezagun, eraikinaren deskribapena hobeto ulertu ahal izateko, lehen etapan –1500 inguruan– altxatu zutela, gutxi gorabehera, gaur egun zutik dirauen zatia, estilo gotikoan. Mende bat geroago, eliza handitu zuten, estilo errenazentistan, gaur egun eraitsita dagoen zatia gehituta. Geroago, XVII. mendean, dena gangatu, leihoak ireki eta korua eta dorrea eraiki ziren. Zatika eraikitako eliza bat –ia guztiak bezala–.

Eraikinaren parte erabilgarriak eraikuntza sendoa izateko itxura ematen du, gurutze formako pilastra sendoak baititu, nerbio konplikatzuz hornituriko gurutze gangei hasiera ematen dietenak. Giltzarriak –nerbioen elkarguneko pieza biribilak– lauak dira, baina margotuta bide zeuden garai batean, sabai eta horma guztiak bezala. Hurrenez hurrenko polikromia geruzak nabari dira, baina, dirudienez, zaharrena harlandu faltsu bati dagokio, zeinaren gainetik ageri baitira gai geometrikoak eta landare gaiak horma eta ganga batzuk zeharkatuz. Eta kontzejuko armarría, 1649an bertan margotua. Geroago, pintura horiek beste batzuez edo, besterik gabe, igeltsuzko geruzez estaliko ziren.



Korupeko gurutze-ganga polikromatua.
Bóveda de crucería del bajocoro policromada.



Hormako antzinako margolanen aztarnak: lore-sorta horren gainean, gerora, harlanduzko lanen imitazio bat margotu zen.

Huellas de las antiguas pinturas de la pared: ramillete de flores sobre el que más tarde se pintó una imitación de sillería.

Arte y devoción

Las imágenes de barcos grabadas en las puertas de la iglesia de San Julián son un elemento único en Bizkaia y escaso en el resto de la cornisa cantábrica. Sólo por ello este templo merecería una especial consideración. Pero es que no es este el único valor del edificio. Por un lado, ya hemos visto que la iglesia de San Julián es un elemento imprescindible para entender la historia de Muskiz. Por otro, es, en sus modestas dimensiones, un edificio de calidad, podríamos decir que de pretensiones, tanto arquitectónicamente como por su mobiliario. Y por eso nos resulta sorprendente su actual estado de semi ruina: casi la mitad del templo ha perdido tejado, bóvedas y buena parte de sus muros.



San Juliango elizaren hegoaldeko fatxadan, tenpluaren burualdea ikusten da, erdi-aurri bihurtua dagoena.

En la fachada sur de San Julián se aprecia el estado de semi ruina de la cabecera del templo.



Gangako giltzarria, motibo geometrikoekin eta landare-motiboekin apaindua.

Clave de la bóveda decorada con motivos geométricos y vegetales.



Ganga honek elizaren bigarren zatia estaltzen du; gaur egun, zati hori ez dago ikusgai jendearentzat.

Esta bóveda cubre el segundo tramo de la iglesia, no accesible al público hoy.

Al acercarnos a ella llama la atención el contraste entre el material de la parte caída, de buena sillería, y el de la que se mantiene en pie, en mampostería encalada, aunque también usa sillares en esquinas, puertas y ventanas. Una diferencia que nos habla de distintas fases en la construcción del templo. Adelantemos ya, para que se pueda comprender mejor la descripción del edificio, que hubo una primera etapa, hacia 1500 y en estilo gótico, en la que se levantó aproximadamente la parte que se mantiene en pie. Un siglo después, en estilo renacentista, se ampliaría la iglesia con la zona hoy derrumbada. Aún más tarde, ya en el XVII, se abovedaría todo, se abrirían ventanas y se levantarían el coro y la torre. Una iglesia construida a saltos –como casi todas–.

La parte útil del edificio da sensación de solidez constructiva, con robustas pilastras cruciformes, que sirven de arranque a unas bóvedas de crucería de complicados nervios. Las claves –las piezas redondas en las que se unen los nervios– son lisas, aunque en otro tiempo estarían pintadas, como la totalidad de los techos y paredes. Se pueden detectar varias capas sucesivas de policromía, pero parece que la más antigua es la que se corresponde a una falsa sillería sobre la que discurren motivos geométricos y vegetales que recorren algunas paredes



Hegoaldeko atea, dinteldua; goiko angeluak barrokoko "belarri" esanguratsuez nabarmenduta ditu. Atearen orrietan kontserbatu da itsas grafitoen multzo paregabe hau.

Puerta sur adintelada y con los ángulos superiores resaltados mediante las características "orejas" barrocas. Sus hojas han conservado este excepcional conjunto de grafitos navales.

Elizara sartzeko bi portada daude. Oinaldekoa da zaharrena: gotikoa da, 1500 ingurukoa, zorrotza, eta hiru arkibolta molduratu ditu. Beste atea, hegoaldekoa, dinteldua da, moldura lauak ditu, eta goiko angeluak «belarriez» nabarmenduta ageri dira. Barrokoa da, XVII. mendekoa, baina, berez, arku formako beste ate bat izan zuen aurrekari, zeinetatik aprobetxatu baitziren pieza batzuk oraingoak gainean duen deskarga-arkuan (non, bide batez, leiho biki zorrotz gotiko baten zati bat erabili baita betegarri gisa). Ate horrek gordetzen ditu egurrezko orriak, grabatuta dituztenak itsasontzien grafitoak eta beste motibo batzuk.

Eliza argiztatzeko, leiho ugari daude, gehienak dintelduak. Koruko biek eserleku zizelkatuak dituzte ate-zangoetan, eta horrek pentsarazten digu tenpluko zaharrenak bide direla, 1500 ingurukoak, baina XVII. mendean eraldatuak, berrien berdinak izateko.

Korua elizaren azken atalaren azken atalaren gainean dago, hiru ataletan banatzen duten pilastrek eutsirik. Behealdean gurutze gangak errepikatzen dira, baina giltzarriak margotuta, oraingoan.


Dorrea oinaldean dago; gorputz baxua du, harlanduzkoa, zirkuluerdiko arkuetan irekia eta gurutze ganga batez estalia. Giltzarriak apaingarri du erliebe bat, non ikusten baitira kaliz bat eta ostia, bi sahats hostoren artean; baliteke Muñatones etxearen -garai bateko patronoen- urruneko aipu bat izatea, halako hamar hosto baitzituen haien armarriak.

Dorre horren barruan, horman txertatuta, erdi puntuko hiru baoko kanpai horma zahar bat dago: elizako aurreko kanpandorrea da. Beste behin ere, tenpluaren eraikuntza faseak nahasian ikusten dira hor.



Oraindik erabiltzen den tenpluaren zatia: oinaldeko bi atalak, korua pilare sendoen gainean dagoela.

La parte aún en uso del templo: los dos tramos de los pies, con el coro elevado sobre sólidos pilares.



1500 inguruko sarrera nagusia; dorrea osatzen duen arkupeak babestuta dago.

El acceso principal, de hacia 1500, está protegido por el pórtico que forma la torre.

y las bóvedas. Y el escudo del Concejo pintado allí en 1649. Más tarde estas pinturas serían cubiertas por otras o sencillamente por capas de yeso.

Al templo se puede acceder por dos portadas. La de los pies es la más antigua, gótica, apuntada, de tres arquivoltas molduradas, de hacia 1500. La otra puerta, al sur, es adintelada recorrida por molduras lisas y con los ángulos superiores resaltados mediante «orejas». Es ya barroca, del XVII, pero en realidad sucede a otra puerta que sería en arco, de la que se han reaprovechado algunas piezas en el arco de descarga que tiene encima (donde, por cierto, se utiliza de relleno un trozo de una ventana geminada apuntada, gótica). Es esta puerta la que conserva las hojas de madera, en las que fueron grabados los grafitos de barcos y otros motivos.

Se ilumina la iglesia con numerosas ventanas, adinteladas en su mayoría. Las dos del coro tienen en su interior unos asientos tallados en las jambas, que nos hacen suponer que serán las más antiguas del templo, de hacia 1500, y que en el XVII fueron modificadas para hacerlas iguales a las nuevas.

El coro se levanta en el último tramo de la iglesia, soportado por unas pilastras que lo dividen en tres tramos. Su parte inferior repite las bóvedas de crucería, ahora sí con las claves pintadas.

La torre se alza a los pies, con un cuerpo bajo, en sillería, que hace de porche abierto en arcos de medio punto y cubierto con bóveda de crucería. La clave se decora con un relieve de un cáliz y una hostia entre dos hojas de sauce, quizás una lejana alusión a los Muñatones, antiguos patronos, cuyo escudo estaba formado por diez de estas hojas.

En el interior de esta torre encontramos, embutida en la pared, una antigua espadaña de tres huecos de medio punto: es el anterior campanario de la iglesia. Una vez más se entremezclan las diferentes fases constructivas del templo.



San Juliango dorrean dauden eguzki-erloju bietako bat.

Uno de los dos relojes de sol que luce la torre de San Julián.

Kanpoaldean, bi eguzki erloju eta erlantz nahiko irten bat daude, dorrearen azken atalari bide emanez; azken atalean, kanpaiantzako hutsuneak daude, erdi puntukoak.

Eraikinaren inguruan, elizpe baten aztarnak gelditzen dira. Harrizko pilastrek, garai batean hormatxo batez lotuek –oraindik zerbait geratzen da zutik iparraldean–, leihoen parean geratzen zen isurki baten azpian egokitutako teilape bati eusten zioten, leihoak erditik moztuz (zeinak erakusten baitu elizpea baino lehenagokoak direla).

Sakristia bat egon zen, XVI. mendetik gutxienez; baina, oso egoera txarrean zegoenez, 1830ean erabaki zen beste bat egitea hegoaldeari atxikita, lehen zatian; gaur egun desagertuta dago hori ere. Sakristia zaharretik (*sacristía vieja*; hala ageri da dokumentuetan) zerbait geratzen da: burualdeari itsatsitako oinplano poligonaleko espazio bat, non oraindik ikusten baitira gangen abiauneak eta hormetako pintura hondarrak. Eta eskuak garbitzeko harraska bat, konketa bat izan bide zenaren azken hondarra.

San Julian elizaren historia Bizkaiko beste askorenaren antzekoa da. 1212an, patronatua Juan Sánchez Marroquini laga zitzaionean, tenplu erromaniko bat bide zegoen han. Baina 1500 inguruan berregin zuten, hazkunde demografikoak eliza handiagoak eraikitzeko premia sortu zuelarik, zeina egin ahal izan baitzen merkataritzak eta burdinolek lurraldeari ematen zioten aberastasun izugarriari esker.


Korura sartzeko eskailera hau gangatila estu batek estaltzen du; kasu bakarra da Bizkaian.

Esta escalera de acceso al coro está cubierta por una estrecha bovedilla, un caso único en Bizkaia.



XVI. mendeko lehen urteetakoak bide ziren oinaldeko portada eta kanpai horma –1503an lanak egiten jardun zuten bertan–, hormen zati bat, koruko leihoen barruko eserlekuak eta berrerabilitako elementuren bat, hegoaldeko portadaren gainean ageri den leiho biki zorrotzeko errematea kasu. Baina eliza txiki geratu bide zen, eta, XVI. mendearan amaieran, burualdetik zabaldu zuten, lehenengo zatia eta beste abside bat gehituta.

Horiek izan ziren eraikinaren bi eraikuntza etapa nagusiak. Baina gero xehetasunak gehitu zitzaizkion. XVII. mendean, esaterako, tenplua gangatu zen, kanpoko kontrahormak



Titularra, San Julian, harrotutako kapa bat soinean duela. 1700. urte ingurukoa da irudi barroko hau, eta berriz ere polikromatu zen XX. mendean.

El titular, San Julián, viste una agitada capa. La figura barroca de hacia 1700 fue repolicromada en el siglo XX.



Pietate hau, 1510 ingurukoa, tenpluko imajinarik zaharrena da.

Esta Piedad de hacia 1510 es la imagen más antigua del templo.

De nuevo al exterior, dos relojes de sol y una cornisa bastante saliente dan paso al último cuerpo de la torre, en el que se abren los huecos en medio punto que alojan las campanas.

Alrededor del edificio quedan los restos de un pórtico. Pilastras de piedra, unidas en otro tiempo por un murete –aún queda algo al norte– sostenían una tejavana ajustada bajo un vierteaguas que quedaba a la altura de las ventanas, cortándolas por la mitad (lo que deja claro que estas son anteriores al pórtico).

Hubo una sacristía al menos desde el siglo XVI, pero en 1830 estaba en tan mal estado que se optó por hacer otra adosada al lado sur, en el primer tramo, hoy desaparecida. Pero algo queda de la *sacristía vieja*, como dicen los documentos: un espacio de planta poligonal pegado a la cabecera, en la que aún vemos los arranques de las bóvedas y los restos de pinturas en sus paredes. Y una pila para lavarse las manos, último resto de lo que debió ser un aguamanil.

La historia de la iglesia de San Julián es similar a la de otras muchas de Bizkaia. En 1212, cuando su patronato fue cedido a Juan Sánchez Marroquín, habría aquí un templo románico. Pero fue rehecho en torno a 1500, en una etapa de crecimiento demográfico que exigió la construcción de templos más grandes, lo que se pudo hacer gracias a la enorme riqueza que el comercio y las ferrerías estaban proporcionando al territorio.

De los primeros años del siglo XVI serán la portada de los pies y su espadaña –se trabajaba en ella en 1503–, parte de los muros, los asientos interiores de las ventanas del coro y algún elemento reutilizado, como el remate de ventana geminada apuntada que asoma encima de la portada sur. Pero la iglesia debió quedarse pequeña, y a fines de aquel mismo XVI se amplió por la cabecera, añadiéndose el primer tramo y un nuevo ábside.

Estas serían las dos grandes etapas constructivas del edificio. Pero con posterioridad se irían añadiendo detalles. Ya en el XVII se abovedaría el templo, se construirían los contrafuertes exteriores y se transformaron la puerta sur y las ventanas. Sin salir de ese siglo se construyó el coro. Y en 1686 el cantero cántabro Francisco de La Pedrosa levantaba la torre. Durante el XVIII y XIX se sucederían las reformas y arreglos, pero ya apenas cambiaría la imagen del templo, salvo por la construcción de una nueva sacristía en 1830, posiblemente también cuando se transformó el pórtico.

eraiki ziren, eta hegoaldeko atea-leihoak eraldatu. XVII. mendean bertan, korua eraiki zen. Eta, 1686an, dorrea eraiki zuen Francisco de La Pedrosa hargin kantabriarrak. XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, zaharberitzeak eta konponketak egin ziren, baina elizaren irudia apenas aldatu zen, 1830ean beste sakristia bat eraiki zelako izan ezik, beharbada arkupea eraldatzeaz batera.

XX. mendearen lehen erdian, ordea, hainbat gorabeherak kolokan jarri zuten elizaren egonkortasuna: elizaren hegoaldeko errepidearen eraikuntzak, Gerra Zibilaren garaiko bonbardaketek, lurpeko luiziek... Azkenik, 1970 inguruan, zorua hondoratu, eta eraikinaren zati bat behera etorri zen.

Ezbehar hartan, erretauletako batzuk ere jausi ziren, eta beste batzuk erretiratu egin zituzten. Garai bateko altzari ugarietatik irudi solte batzuk baino ez dira geratzen gaur egun. Zaharrena Pietate gotiko berantiar bat da, 1515 ingurukoa. Gainerako tailuak barrokoak dira: Ama Birjina eta San Jose, Haurrarekin; bi Kristo gurutziltzatu; eta titularra, San Julian, 1700 inguruan koka daitekeena, kapari erreparatuz gero –XX. mendean berriro polikromatuta badago ere–.

Gogoan izatekoak dira, halaber, bataiarria, XVI. mendekoa, eta 1802ko bi kanpaiak, San Julianen eta Santa Basilisaren –tenpluaren titularkidea izan bide baitzen jatorriz– omenekoak.

Eta, jakina, balio bereziko elementu higigarri bat: hegoaldeko ateko egurrezko bi orriak, zeinetan muskiztar batzuk entretenitu baitziren grabatzen Lavallean hurbilean ikusten zituzten itsasontziak, baita bertako bizilagunen balentriei erreferentzia egiten dieten sinboloak eta izen batzuk ere. Guztiz ohiz kanpoko elementua da Bizkaian. Ez dakigu noiz jarri ziren orri horiek, dokumentazioa ez baita oso zehatza. Baina haien egikeragatik eta, batez ere, haietan grabatuta dauden itsasontzien tipologiagatik, XVIII. mendearen erdialdetik XIX. mendearen lehen hamarkadetara bitartekoak direla pentsa liteke.


Gaur, ia erabiltzen ez dela, aurri nolabait erromantiko gisa ageri da Muskizko San Julian. Lortuko ahal du Muskizek haren hondamena geldiarazi eta bere ondare historikoaren elementu adierazgarrietakoa kontserbatzea.



Ama Birjinaren eta ile kizkur harroko Haurraren irudi barroko ederra, 1630 ingurukoa.

Bella imagen barroca de la Virgen con un Niño de abultados rizos, de hacia 1630.

Pero en la primera mitad del siglo XX varias circunstancias irían minando la estabilidad de la iglesia: la construcción de la carretera al sur del templo, los bombardeos durante la Guerra Civil, los corrimientos de tierras del subsuelo... Finalmente, hacia 1970, el suelo cedió, y parte del edificio se vino abajo.



XVI. mendeko bataiarri errenazentista soil eta dotorea.

Sobria y elegante pila bautismal renacentista del siglo XVI.

El derrumbe arrastró algunos de sus retablos y otros fueron retirados. De su en otro tiempo abundante mobiliario solo quedan hoy algunas imágenes sueltas. La más antigua es una Piedad tardogótica, de hacia 1515. Las restantes tallas son barrocas: la Virgen y San José con el Niño, dos cristos Crucificados y el titular, San Julián, con una agitada capa que lo sitúa hacia 1700 –aunque repolicromado ya en el XX–.

Aún tendríamos que recordar la pila bautismal, del siglo XVI, y las dos campanas de 1802 dedicadas a San Julián y Santa Basilea –quien en origen sería cotitular del templo–.


Y, por supuesto, un elemento mueble de singular valor: las dos hojas de madera de la puerta sur, en las que algunos muskiztarras se entretuvieron en grabar los barcos que veían en el inmediato puerto de Lavalle, junto con símbolos alusivos a los éxitos de los vecinos del lugar y algunos nombres. Algo verdaderamente excepcional en Bizkaia. No sabemos cuándo fueron colocadas estas hojas, ya que la documentación no es muy precisa. Pero por su factura y, sobre todo, por la tipología de los barcos en ellas grabados, podríamos situarlas entre mediados del XVIII y las primeras décadas del XIX.

Hoy, sin apenas uso, San Julián de Muskiz se muestra como una ruina un tanto romántica. Esperemos que su deterioro pueda ser frenado y Muskiz conserve uno de los elementos más representativos de su legado histórico.



Zenbait xehetasun teknikok –hala nola taulen elkarren arteko lotura edo erabilitako burdineria motak– atearen kronologia erakusten dute, XVIII. mendearen azken herenetik XIX. mendearen lehen hamarkadetara bitartekoa.

Algunos detalles técnicos –como la unión de las tablas entre sí o el tipo de herrajes utilizados– apuntan a una cronología de la puerta que va desde el último tercio del siglo XVIII hasta las primeras décadas del XIX.



BA

HA



JOXER




Biz ^{Te} Gomez




Urguixoo



XPI



LLANO



LLANO



San Juliango itsasontzien grafitoak

XABIER ARMENDARIZ

Los grafitos navales de San Julián


XABIER ARMENDARIZ

San Juliango itsasontzien grafitoak

Jartzen bagara Muskizko San Julian elizaren hegoaldeko atean eta egiten badugu bi mende atzera, pertsona oso partikular batzuekin egingo dugu topo, seguru aski. Lavalleko kaian lotuta ikus dezakegun kexemarin ontzi zoragarriaren armadoreak dira. Leku pribilegiatu horretatik entzungo ditugu itzainen ahotsak, beren idiak akuilatzen gurdietan daramaten mineral karga itsasontziaren saihetsera hurbiltzeko. Eta ikusiko dugu kapitaina zamalanak arretaz aztertzen, ontzia desorekatu ez dadin, eta zaintzen mea ongi lehorra dagoela, dagokiona baino gehiago pisatu ez dezan, euria egiten duenean edo zamaketariak minerala itsasertzetik gertu deskargatu eta mareak estaltzen duenean gertatzen den bezala. Eta marinela, itsasontzia lurrera lotuta mantentzen duten estatxei adi, korrontearen aurka borrokan. Armadoreak isilik daude, Barbadun ibaian egiten diren operazioei adi. Llano familiako kideak izango dira, agian, edo Urkixotarrak, edo bietakoak. Agian, sozietate bat osatuko zuten ontzi berria erosi eta harekin merkatu berriak irekitzeko. Seguru asko, harro eta etorkizunerako itxaropentsu egongo dira. Hala ere, itsasgizonak direnez, badakite jainkozkoak bete behar dituztela. Kapitainak amarrak askatzeko agindua eman eta kexemarina marearen korronteak bultzatuta itsasorantz handikio doala, hurbiltzen dira gure lagunak atera eta, labana txiki batekin, jainera handiko erritual batean, egurrean grabatzen dituzte euren izenak, garaipenaren sinboloarekin eta ontzi berriaren irudiarekin batera, haize oihal guztiak zabalik daramatzala. Hemendik aurrera, mundu honetako bi lagunak esku geratzen da bere itsasontzi ederraren zoria: kapitaina eta San Nikolas Barikoa, Muskizeko San Juliango nabigatzaileen patroia.

Itsasontziak Barbadunen

San Juliango ateko inskripzioak aurkitu izana garrantzi bereziko mugarrria da Bizkaiko itsas historia eta antropologiarako. Inskripzio soilak dira, itxura batean inozoak, baina gure arbasoek itsasoarekin zuten harremanaren puzzle korapilatsua osatzen laguntzeko funtsezko informazioa ematen digute adituoi.



Kofradiaren liburua eta ordenantzak, "Urquixo" eta "Llano" sinadurak dituztela, 1694. Libro de la cofradía y ordenanzas con las firmas de "Urquixo" y "Llano", 1694.

Los grafitos navales de San Julián

Si nos situamos en la puerta sur de la iglesia de San Julián y retrocedemos dos siglos, seguramente nos hallaremos acompañados de varias personas muy particulares. Se trata de los armadores del precioso quechemarín que podemos ver abarloado al muelle de Lavalle. Desde este lugar privilegiado escucharemos las voces de los boyeros que jalean a sus bueyes para acercar la carga de mineral de los carros al costado del barco. Veremos al capitán revisando cuidadosamente la estiba, para que el barco no se desequilibre y comprobando que la vena está seca, que no pesa más de lo normal, como sucede cuando llueve o cuando los estibadores descargan el mineral cerca de la orilla y lo cubre la marea. Los marineros, atentos a las estachas que mantienen el barco seguro a tierra, en lucha contra la corriente. Los armadores permanecen silenciosos, atentos a las operaciones que se llevan a cabo en el río Barbadun. Quizás se trate de miembros de la familia Llano o de los Urquixo, o de ambas. Quizás han formado una sociedad para comprar el nuevo barco, con el que abrir nuevos mercados. A buen seguro que estarán orgullosos y esperanzados por el futuro. Sin embargo, como marinos, saben que han de cumplir con la divinidad. Cuando el capitán da orden de largar amarras y el quechemarín desciende majestuoso hacia el mar impulsado por la corriente de marea, nuestros acompañantes se acercan a la puerta y con una pequeña navaja, en un ritual cargado de piedad, graban sus nombres en la madera, acompañados del símbolo de la victoria y las líneas de su nueva embarcación con todas las velas al viento. A partir de ahora la suerte de su hermoso barco queda enteramente en manos de tan solo dos personas en este mundo: su capitán y San Nicolás de Bari, patrón de los mareantes de San Julián de Muskiz.

Los barcos en el Barbadun

El hallazgo de las inscripciones de la puerta de San Julián de Muskiz supone un hito de especial relevancia para la historia y antropología marítimas de Bizkaia. Unas inscripciones sencillas, en apariencia ingenuas, pero que nos proporcionan una información fundamental que nos ayuda, a los diversos especialistas, en la ardua tarea de completar el puzzle intrincado de la relación de nuestros antepasados con el mar.

Para entender y analizar la tipología de los barcos presentes en esta puerta, hemos de conocer las características del medio físico donde debían realizar su trabajo.



Lavalleko portuaren irudikapena, kexemarin batean mea zamatzeko lanak egin bitartean, 1800 inguruan. Recreación del puerto de Lavalle durante las operaciones de estiba de mineral de un quechemarín hacia 1800.

Ate horretan dauden itsasontzien tipologia ulertzeko eta aztertzeko, lanean jarduten zuten ingurune fisikoaren ezaugarriak ezagutu behar ditugu ezinbestean.


Gaur egungo Arena hondartzak –eta Barbadun ibaiaren bokalearen ibilgu orokorrak– iparralde-hegoalde ardatzari jarraitzen dio, gutxi gorabehera. Kantauri itsasoan, iparraldekoa, ipar-mendebaldekoa eta, neurri txikiagoan, ipar-ekialdekoa dira haize nagusiak. Horri esker, San Juliango zamalekuraino igo ahal izango ziren ibaian gora, txopako edo hegatsoko haizeekin, hau da, baldintza onekin, batez ere itsasgoran.

Ontziaren edukieraren arabera, Lavalloko portuko ofizialek aurrez zehaztutako lekuetan askatu beharko zuten lasta. Zamalekua San Julian eliza dagoen muinoaren oinean bide zegoen, hegoaldera begira, ibaiaren meandro batek haize nagusietatik babestuta; azken batean, itsasontziak segurtasunez ainguratzeko edo lotzeko leku egokian.

Minerala kargatzeko, egurrezko dikearen alboz albo jartzen zuten ontzia, eta brankako eta popako luzeen eta *springen* bidez lotzen zitzairen ibaiaren ertzetan zeuden egurrezko piloteei. Oso garrantzitsua zen itsasontzia behar bezala ibilgetuta geratzeko, kaiarekiko trabeska. Zamaketa lanak amaitu ondoren, itsasgora egin arte itxaroten zen, eta itsasbeheran itsasoratzen zen ontzia, mareak bultzatuta. Hori izango zen, beharbada, unerik kritikoena, haize kontra nabigatu behar izaten baitzen gehienetan, haize oihalak erabiltzeko aukera askorik gabe, marea beste laguntzarik gabe. Gainera, ibai portuek zailtasun erantsi bat dute: haize aldakorak, inguruko orografiaren arabera. Mendiek, haranek, muinoek aldarazi edo bizkortu egin zitzaizkion haize katabatikoak, haiek harrapatu eta oso arriskutsu bihurtzeraino. Halako egoeretan behar da ahalik eta eraginkortasun handieneko eta maniobra azkarraren haize oihalen aparailua.

XVIII. mendearen erdialdetik XIX. mendera arte, Bizkaitik ateratzen zen mineralaren salerosketa ongi definitutako bi tipologiatako itsasontzien bidez egiten zen. Alde batetik zeuden itsasontzi txikiak, masta bat edo bikoak, Bizkaiko bertako merkatua eta inguruko eremuak hornitzeko minerala garraiatzen zutenak. Ibai ibilguetan barrena erraz sartzen ziren, sakonera eta karga txikia baitzuten, eta mea uzten zen erreterietaraino iristen ziren; handik, idi gurdietan eramaten zuten burdinoletara.

Kabotajeko garraio hori tamaina txikiko patatx eta ketxemarinetan egiten zen. 15 eta 20 tona arteko pisua izaten zuten, eta, batez beste, 400 eta 450 kintal ar mea kargatzeko ahalmena.




Lavalloko kaiko portu-operazioen zirriborroa. Boceto de las operaciones portuarias en el muelle de Lavallo.

La actual playa de La Arena y el curso general de la desembocadura del río Barbadun se encuentra orientada aproximadamente en el eje norte-sur. Los vientos dominantes en el Cantábrico son norte, noroeste y en menor medida nordeste. Esto permitiría remontar el río hasta el cargadero de San Julián con vientos portantes de popa o de aleta, es decir, con buenas condiciones, preferentemente en el periodo de subida de marea.

Dependiendo del tonelaje del barco se tendría que desestibar el lastre en los lugares previamente designados por los oficiales del puerto de Lavallo. Así mismo, el cargadero se encontraría al pie del promontorio en el que está ubicada la iglesia de San Julián, con orientación al sur, en un meandro del río que lo protege de los vientos dominantes, en definitiva un lugar idóneo para fondear o amarrar los barcos con seguridad.

Para la carga de mineral, se abarloaba el barco al dique de madera y se amarraba por medio de largos de proa y popa y *springs* a pilotes de madera situados en las riberas del río. Era de suma importancia que el barco quedase perfectamente inmovilizado, con su través al muelle. Una vez terminada la operación de estiba, se esperaba al repunte de marea en pleamar para zarpar con la vaciante, que impulsaba el barco hacia la desembocadura al mar. Este quizás fuese el momento más crítico puesto que en la mayoría de los casos había que navegar contra el viento, con pocas posibilidades de utilizar las velas, ayudado solo por la marea. Además, los puertos fluviales presentan una dificultad adicional, que es la variabilidad de los vientos en función de la orografía circundante. Montañas, valles, colinas, podían hacer variar o acelerar los vientos catabáticos encañonándolos y volviéndolos muy peligrosos. Es en estas circunstancias cuando se necesita un aparejo vélico de la máxima eficacia y de rápida maniobra.



San Juliango hegoaldeko atearen marrazkia, arkatzez egina, zaharberritu aurretik. Dibujo a lápiz de la puerta sur de San Julián antes de ser restaurada.


Durante el periodo comprendido entre mediados del siglo XVIII y hasta bien entrado el siglo XIX, el tráfico de mineral que parte desde Bizkaia, responde a dos tipologías muy bien definidas. Por un lado, las embarcaciones menores de uno o dos palos, que transportaban mineral para abastecer el mercado local de Bizkaia y zonas adyacentes. Eran capaces de adentrarse por los cursos fluviales sin dificultad, dado su poco calado y carga, hasta las renterías donde se depositaba la vena para su posterior traslado en carros de bueyes hasta las ferrerías.

Este tráfico de cabotaje se realizaba en pataches y quechemarines de pequeñas dimensiones. Podían oscilar entre las 15 a 20 toneladas y cargar una media de 400 a 450 quintales machos de vena.

Bestetik, edukiera eta zama garraiatzeko ahalmen handieneko itsasontziak bidaia luzeenez eta pleitarik garrantzitsuenez arduratzen ziren: Asturiasera eta Galiziara iristen ziren, alde batetik, eta Gipuzkoara eta Frantziara, bestetik. Kataluniara egindako nabigazioen berri ere badago. Itsas bidaia horietarako, tamaina handiagoko itsasontziak behar ziren: handienek 30 tona irits zitzaketen, eta 800 kintal ar meako karga erabilgarria.

Garai historiko hartan, Bizkaiko kostaldean ketxemarinaren presentzia oparo dago dokumentatuta, haiek baitzuten itsas garraioaren monopolioa. Itsasontzi haiek Frantziako *chasse-marée* estatik eratorriak ziren, eta hain egin ziren ezagunak, ezen, denborarekin, haien haize oihalen bertsio sinplifikatua bere egin baitzuten euskal arrantza txalupa tradizionalak ere. XX. mendearen lehen laurdenera arte erabili izan zen ontzi mota hori, lehenengo lurrin ontziekin haize oihalak behin betiko alde batera gelditu ziren arte.

San Juliango ketxemarinak, inolako zalantzarik gabe, kabotajeko altuerako garraio horretan kokatzen dira. 30 tona inguruko ontziak ziren, eta 15 eta 20 metro bitarteko luzera zuten puntan artean, maspreza kontuan hartu gabe. Haien aparailuak eta ezaugarriak, gainera, argi eta garbi adierazten digute distantzia luzeko kabotajeko nabigazioetarako prestatuta zeudela. Oro har, ketxemarinaren haize oihalen konfigurazioa mota horretako ontzien oso bereizgarria da, eta patatxek zutenaz erabat bestelakoa. Patatxek brigantin goleta aparailu sinplifikatua zuten, baina ketxemarinek, kasu honetan hiru makilakoek, haize oihala latindarrak erabiltzen zituzten trinketeen, nagusian eta mesanan, hainbat foke zituen botaloio edo maspreza batekin osatua. Barealdietan, aldeko haizeekin, gabia kengarriak ere erabil zitzaketen.



Haize oihala latindarren berezitasuna da haize angelu gehienetan orientatu daitezkeela, eta, hala, maniobragarritasun ezin hobea ematen diote itsasontziari, baita leku estuetan edo haize aldakorreetan ere, hala nola ibai portuetan eta, gure kasuan, Lavallean. Bizaratzeko gaitasun ikaragarria dute, eta beren ardatzaren gainean bira daitezke ziboga egin behar izanik gabe. Bestalde, eta hau ere garrantzizkoa da, penintsularen iparraldeko kostaldearen zatirik handiena haizebeto kostaldea deritzonetakoa da; hau da, hango uretan nabigatzen den itsasontziak haizearekiko angelu txikienean nabigatzeko gaitasun handirik ez badu, denboraleak harkaitzen kontra bultzatzeko arriskua du. Patroi bakar batez, bi edo hiru marinez eta itsasmutilen batez osatutako eskifaiak aise erabil zitzakeen era horretako ontzien aparailuak, eta, hala, gastuak aurreztu.

San Juliango grafitoak egin zituenak, aparailua eta haize oihalak zehatz-mehatz adierazteaz gain, leialki irudikatu zituen kroskoaren formak. Kasu honetan, ketxemarinek oso aurreratua dute branka, masprez eta fokeez hornitua, eta horrek adierazten digu prestatuta zeudela itsas zabaleko nabigaziorako eta edozein olaturi aurre egiteko. Azken batean, zama handia garraiatzeko gaitasuna, itsasketarako ezaugarri bikainak eta maniobratzeko erraztasuna zirela eta, Bizkaiko armadoreentzat oso inbertsio errentagarria ziren ontzi haiek.

Por otro lado, los barcos de mayor tonelaje y capacidad de estiba se encargaban de las singladuras más largas y los fletes más importantes, navegando hasta Asturias y Galicia, por un lado, y hasta Gipuzkoa y Francia por el otro. Se tiene constancia también de navegaciones realizadas a Cataluña. Estas singladuras exigían barcos de mayor porte, pudiendo llegar los más grandes de 30 toneladas de arqueo y una carga útil de hasta 800 quintales machos de vena.

En este periodo histórico está documentada una abrumadora presencia de quechemarines en la costa de Bizkaia, que monopolizan el tráfico marítimo. Estos barcos evolucionaron de los *chasse-marée* franceses, y se hicieron tan populares que, con el tiempo, una versión simplificada del velamen fue adoptada también por las lanchas de pesca tradicionales vascas. Se mantendrán en activo hasta el primer cuarto del siglo XX, cuando las primeras embarcaciones a vapor desbancan definitivamente a la vela.

Los quechemarines de San Julián se encuadran, sin ningún género de dudas, en este tráfico de cabotaje de altura. Se trataba de embarcaciones de alrededor de las 30 toneladas, de entre 15 a 20 metros de eslora entre puntas, sin contar el bauprés. Su aparejo y características nos indican además, de manera inequívoca, que estaban preparados para navegaciones de cabotaje a larga distancia. En líneas generales, la configuración de las velas de los quechemarines es muy característica de este tipo de embarcaciones y las diferencia totalmente de los pataches. Estos últimos utilizaban aparejo de bergantín goleta simplificado, sin embargo, los quechemarines, en este caso de tres palos, utilizaban velas latinas en el trinquete, mayor y mesana, complementado con un botolón o bauprés con varios foques. En momentos bonancibles, con vientos portantes, podían utilizar también gavias volantes.



Las velas latinas tienen la particularidad de poder ser orientadas en la mayor parte de los ángulos de viento, proporcionando al barco una maniobrabilidad excelente, incluso en lugares angostos o de vientos variables, como los puertos fluviales, y en nuestro caso el de Laval. Esto les proporciona una increíble capacidad de virada, pudiendo hacerlo sobre su propio eje sin tener que realizar una ciaboga. Además, la mayor parte de la costa norte peninsular es lo que se denomina una costa a sotavento, es decir, que cualquier barco que navegue en sus aguas está expuesto al peligro de ser empujado por un temporal contra las rocas si no dispone de buena capacidad de ceñir al viento. Una tripulación compuesta de tan solo un patrón, dos o tres marineros y algún grumete, podía manejar sin dificultad el aparejo de estos barcos; con el consiguiente ahorro en gastos.

Quien realizó los grafitos de San Julián, no solo plasmó con meticulosidad el aparejo y velas, sino que reflejó fielmente las formas del casco. En este caso los quechemarines presentan una proa muy lanzada, con bauprés y foques, lo que nos indica que estaban preparados para la navegación de altura y para enfrentar cualquier tipo de oleaje. En suma, su capacidad de carga, excelentes capacidades marineras y facilidad de maniobra, convertía a estos barcos en inversiones sumamente rentables para los armadores vizcaínos.

San Juliango izenak, goraipamenak eta itsasontziak

Elizaren hegoaldeko atean jartzen denak garai batean Lavallean portua zegoen ibaiko sektorearen ikuspegi pribilegiatua ikusiko du. Hor kokaturik, San Juliango inskripzioen egileak edo egileek argiki ikusiko zituzten itsasontzien xehetasun guztiak.

Ateak inskripzio batzuk ditu, hiru sailetan bana daitezkeenak, nahiz eta, gure ustez, ageriko erlazioa duten guztiak. Hauek dira hiru sailak:

Inskripzio epigrafikoak

Letra, izen eta ikur sorta bat dira, inskripzioen egileei dagozkienak, itxuraz.

13. zk. - "A" letra dirudi.

6. eta 4. zk. - "LLANO" abizena da, eta bi grafitotan errepikatuta dago. Historian zehar inguruan ugari zabalduetako itsasgizon eta marinelen leinu bati zegokion. Xehetasun gisa, aipatzekoa da Llano abizeneko "A" letrak 13. zenbakiko "A" letraren egikera bera duela, eta, hala, litekeena dela pertsona berak egina izatea.

7. zk. - "Biz^{te} Gomez" izen-abizenak antzinako grafian idatzita, "Bizente" izena laburtuz, "Te" goi-indizera igota. Gomez abizena inguruan oso ohikoa den arren, ezin da pertsona identifikatu.

17. zk. - "URQUIXO" abizena. Ez dago Llano abizena bezain zabalduta inguruan, baina badira haren erreferentzia historikoak ere. 1690ean, Barbaduneko itsasadarreko nabigazioa arautzeko idatzi ziren ordenantzen sinatzaileen artean ageri dira Pedro de Manzanal y Urquijo -Urquixo sinatzen zuena- eta Llano, de la Quadra edo de la Sota abizeneko beste zenbait kide, San Nikolas marinelen kofradiako ontzi jabe eta maisuak. Pedro de Manzanal y Urquijo hura bera Kofradia honetako maiordomo izendatu zuten 1694ko apirilean.

14. eta 1. zk. - "XPI" idazkuna, P letraren gainean duela azentu zirkunflexua dirudiena, edo "A" osatu gabe bat. 1. zenbakian "TA" bat soma daiteke.



Nombres, símbolos y barcos en la puerta de San Julián

Quien se aposte en la puerta sur de la iglesia dispone de una vista privilegiada del sector fluvial donde antaño se ubicaba el puerto de Lavallean. Aquí situado, el autor o autores de las inscripciones de San Julián podrían ver con claridad cada detalle de los barcos.

La puerta presenta una serie de inscripciones que podríamos dividir en tres grupos diferenciados y, sin embargo, a nuestro entender, perfectamente relacionados entre sí. Estos son:

Inscripciones epigráficas

Se trata de un conjunto de letras, nombres y símbolos que parecen aludir a los autores de las inscripciones.


Nº 13- Parece representar la letra "A".


Nº 6 y 4- Se trata del apellido "LLANO" que se repite en dos grafitos. Pertenecía a un linaje de navegantes y marinos militares de amplia implantación en la zona a lo largo de la historia. Como detalle, cabe destacar que la "A" de Llano tiene la misma factura que la "A" nº 13, por lo que pudiera haber sido hecha por el mismo autor.

Nº 7- Nombre y apellido "Biz^{te} Gomez", escrito en grafía antigua abreviando "Bizente" y elevando la "Te" en superíndice. Aunque el apellido Gómez es muy común en la zona, no hemos identificado al personaje.

Nº 17 - Apellido "URQUIXO". No tan presente en la zona como los Llano, pero del que se tienen también referencias históricas. Ya en 1690, entre los firmantes de las ordenanzas que se redactaron para regular la navegación en la ría del Barbadun, encontramos a Pedro de Manzanal y Urquijo -que firma como Urquixo-, junto con varios Llano, de la Quadra o de la Sota, dueños y maestros de navíos de la Cofradía de Mareantes de San Nicolás. Este mismo Pedro de Manzanal y Urquijo fue nombrado mayordomo del esta Cofradía en abril de 1694.

Nº 14 y 1 - Inscripción "XPI", con lo que parece un acento circunflejo, o una letra A incompleta, sobre la P. En el número 1 parece adivinarse una "TA".





Goraipamenak

San Juliango inskripzioen bereizgarri nagusietakoa *Víctor* edo *Vitor* goraipamenak dira. Antzinako ikur horrek K.o. 313an Milanen emandako ediktuaz geroztik erromatar oste kristautuek beren estandarte eta ezkutuetan erabilitako krismoian du jatorria.



Erromatar X eta P letretatik eratorria da "V.I.C.T.O.R." letrek osatutako goraipamena, zeinak egiten baitio erreferentzia lorpen edo garaipen handi bati. Maiz erabili izan dira unibertsitateetako fatxadetan eta unibertsitate hirietako eraikinetan. Grafito modernoan antzera margotzen ziren, doktoregoa lortu zuen ikasle baten izenari lagunduz. Salamancako unibertsitatea bide da era honetako adierazpen gehien dituen ikastegia.

Itsasketaren eremuan, itsasontzien irudikapenekin batera agertu ohi da, itsas balentria edo lorpenen bat goraipatuz. Horren adibide dira Kasedako San Zoilo ermitaren barruko itsas grafitoak, XVI. mendekoak.

XX. mendearen erdialdean, Francoren erregimenak Gerra Zibila amaitu ondoren Victor adierazpena bere egin zuen, lortutako garaipenaren ikur gisa, eta, hala, Espainian behintzat, berehala utzi zitzaion hura beste testuinguru batzuetan erabiltzeari.

San Juliango atera itzuliz, argi eta garbi egikaritutako bi goraipamen ikus ditzakegu, hala nola 3. eta 16. zenbakiak, bai eta letra multzo bat ere, egikeraz aurreko sinboloak gogorarazten dituzten baina horizontalki jarrita dauden letrek osatua (2. zk.). Aurrealdean, N bat, R bat, A bat, ziurrenik, eta X bat igartzen dira; eta, bigarren mailan, txikiago, O bat eta S bat. Esanahia zein den ez dakigu, baina baliteke esaldiren bat osatzen duten inisialak izatea, edo, agian, "Ave Maria" da, era horretako otoizlaburra baitakar nolabait gogora.

Aurrerago ikusiko dugunez, ikur horiek atean adierazitako abizenei eta itsasontziei lotuta ageri dira.



Víctores o Vítores

Uno de los elementos más peculiares de las inscripciones de San Julián es la presencia del símbolo *Víctor* o *Vitor*. Este antiguo emblema tiene su origen en el crismón romano que acompañó en estandartes y escudos a las cristianizadas tropas romanas desde el edicto de Milán en el 313 d.C.

Una derivación de la X y la P romana es el *Víctor* compuesto por las letras "V.I.C.T.O.R.", aludiendo a un gran logro o victoria. Generalmente han sido utilizados con gran profusión en las fachadas de universidades y en los edificios de las poblaciones universitarias. Se pintaban a modo de moderno grafito acompañando al nombre de un alumno que había logrado el doctorado. La Universidad de Salamanca quizás sea el centro docente con mayor cantidad de estas representaciones.

En el ámbito marítimo lo podemos encontrar junto a representaciones de embarcaciones, *vitoreando* alguna hazaña o logro naval. Un ejemplo serían los grafitos navales del interior de la ermita de San Zoilo en Caseda, que se remontan al siglo XVI.

A mediados del siglo XX el régimen de Franco se apropió del *Víctor* como símbolo de la victoria tras finalizar la Guerra Civil, por lo que su utilización en otros contextos, al menos en España, cayó inmediatamente en desuso.

Regresando a la puerta de San Julián podemos observar dos víctores de clara ejecución, como son los números 3 y 16, así como un conjunto de letras (nº 2) que recuerdan en su ejecución a los anteriores símbolos pero que están dispuestas de manera horizontal. Se adivinan en primer término una N, una R, posiblemente una A y una X; y en segundo término y más pequeños, una O y una S. Su significado se nos escapa, pero podría tratarse de las iniciales que compongan alguna frase, o quizás, puesto que recuerda vagamente a este tipo de jaculatorias, un "Ave María".

Como veremos posteriormente, estos símbolos parecen asociados a los apellidos y los barcos representados en la puerta.



Itsasontziak

Garbiro itsas irudikapen direnei dagokienez, eta garrantziaren arabera ordenatuta, tipologia bereko ontzi multzo bat dugu lehenik. Xehetasun handiz eginak dira, eta argi eta garbi deskribatuta dituzte aparailuak, baita haize oihalen baluma ere. Oso xehetasun garrantzitsuak eskaintzen dituzte itsasontzi klasikoak ezagutzen dituen edozein marinela edo itsas ingeniariaren begietara, batez ere kroskoaren lerroetan eta makilen antolaketan.

15. zk. – Ketxemarin bat da, oihalak zabalik dituen. Brankatik hasita, egileak maspreza irudikatu du, tamaina handiko ontziei dagozkien bi tarteekin. Brankako estaia eta hiru makilak ere ikus daitezke: trinketa, nagusia eta mesana, beren haize oihal latindarrekin. Makila nagusian, bi berga daude irudikatuta, oihalik gabeak, gabia kengarriak edo latindarrak izan litezkeenak. Kroskoaren formak, brankan zein txopan, aurrerratuak dira.

8. zk. – Kasu honetan, beste ketxa bat dugu. Eskematikoagoa da, baina baditu bestelako zenbait xehetasun interesgarri. Alde batetik, kroskoaren popako aldeko formaren bitartez, haren diseinua zehazki adieraztea zen asmoa. Masteria adierazten duten marrak, berriz, apur bat inozoagoak dira; ziurtasun osoz hiru masta dituen ontzi bat irudikatzen dute, baina bi besterik ez ditugu ikusten: trinketa eta atzeko masta, bakoitza bere belekin. Trinketa eta atzeko masta belak altxatuta dituztela ageri dira, bi-biak oso harrotuta, haize-ertzaren kurbadura dela eta. Agian kuarteleratuta, ontza haizearekiko egonkor mantentzeko.

Xehetasunik deigarriena ontzigainaren lehen herenetik zeharretara ateratzen diren bi lerroak eta hegatsetik ateratzen dena dira. Itxuraz, ontzi bat kaitik urruntzea eragozteko hura lotzeko erabiltzen diren *springak* irudikatzen dituzte; horrek argiro adieraziko luke bandaz banda kaiaren ondoan jarrita zegoela, ababorreko aldetik, eta zama estibatzeke prozesuan. Brankako *springa* bikoitza izatearen arrazoia izan daiteke senotik pasatua zegoela lehorrean, edo korrontea indartsua zela eta amarra hori sendotu zela. Brankan zeharreko soka ere marratzuta dago. Popako txanbergatik itsasketa-funtziorik gabeko bi lerro abiatzen dira; hortaz, seguruenik gerora gehitutako marrak dira, itsasontzia irudikatzeke asmoarekin bat ez datozenak.

19. zk. – Ketxemarin honetan, berriz ere 15. zenbakikoaren osaera bera ageri zaigu, baita masta nagusiaren belazurrun aldagarriaz ere. Ontzi beraren bi irudikapen izan daitezke. Ontzi-tipologia horretako hiru grabatuen artean, agian 19. zenbakia izango da krosko-lerroak argien agertzen dituen, brankaren eta poparen forma luzatzeari dagozkion angelu zehatzez. 8. zenbakian ez bezala, hemengoan ontzia brankako eta popako luzeekin lotuta dagoela dirudi, *esprinekin* izan ordez.



Barcos















En cuanto a las representaciones netamente marítimas y en orden de importancia, nos encontramos con un primer grupo de embarcaciones de una misma tipología. Han sido ejecutadas con gran detalle, describiendo claramente su aparejo e incluso la baluma de las velas. Ofrecen detalles muy importantes a ojos de cualquier marino o ingeniero naval que esté familiarizado con los barcos clásicos, en especial en las líneas del casco y disposición de los palos.

Nº 15 - Representa un quechemarín con sus velas al viento. Comenzando por la proa, el autor ha representado el bauprés, con los dos tramos correspondientes a embarcaciones de un porte importante. Se observa también el estay de proa con un foque y los tres palos: trinquete, mayor y mesana con sus respectivas velas latinas. En los palos de trinquete y mayor se representan dos gavias volantes. La representación de las velas latinas de los tres palos tiene las proporciones adecuadas al conjunto general del dibujo. Las formas del casco tanto a proa como a popa son lanzadas.

Nº 8 - En este caso tenemos otro quechemarín. Su carácter es más esquemático, aunque ofrece otros detalles interesantes. Por un lado, la forma del casco a popa buscaba una representación fiel de sus líneas. En cuanto a la arboladura los trazos son algo más ingenuos, representan un barco con toda seguridad de tres palos, aunque sólo vemos dos: trinquete y mesana con sus respectivas velas. Muestra el trinquete y la mesana con las velas izadas, ambas muy embolsadas por la curvatura de la baluma. Quizás acuarteladas, para mantener el barco estabilizado con el viento.

El detalle más llamativo se encuentra en las dos líneas que parten oblicuamente del primer tercio de la cubierta y la que parte de la aleta. Parecen representar los *sprines* con los que se amarra una embarcación cuando se quiere que esta no se separe del muelle, lo que indicaría a todas luces que estaba abarloada al muelle por su costado de babor y en proceso de estibado de la carga. El hecho de que el *spring* de proa sea doble puede obedecer a que estaba pasado por seno en tierra, o que la corriente era fuerte y se refuerza esa amarra. También está representado el cabo de través de proa. Del botolón de popa o escotera parten dos líneas que no obedecen a ninguna función náutica por lo que posiblemente se trate de líneas añadidas que no corresponden a la intención representativa del barco.





Edonola ere, hiru itsasontziak XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako ketxemarinen irudikapen bikainak dira.

20. zk. - Tipologia zehaztugabea du, ketxemarina edo pailebotea izan daiteke behar bada. Nabarmenezkoa da popak daukan forma, alkazarrarekin eta olanatxoarekin. Merezki du azpimarratzea ontziaren gilaren irudikapena dirudiena ere, popan xehetasun berezia duela.

10. zk. - Grabatu hau oso interesgarria da. Nahiz eta itsasontziko masteria osorik ez eduki, ezta neurri egokietara doitu ere, egileak egitura-elementu espezifiko bat irudikatu nahi izan zuen, mastak ontzizainera zeharka lotzen dituzten abenkak, hain zuzen. Abenka horiek, zehar-sokekin batera, antzinako belaontzien eskala bereizgarria osatzen dute, eskailera moduan erabiltza marineriei masteriako atal guztietara igotzeko aukera ematen diena. Kasu honetan, trinketeko beheko hagian ageri dira, eta lehenengo gabiarrainoko tarte bakarrekin. Masta nagusiak beheko haga eta gabiako mastaxka dauzka, dagozkien bi abenka-tarteekin eta horien gabiekin.


Kroskoari dagokionez, haren egitura-lerroak suma daitezkeela dirudi, marra mehez, flotazio-lerroak. Itsasontziaren branka-bularra ere egiazkoaren ahal den antzik handiena emanez marraztuta dago. Berriri ere, itsasontzia lehorrera lotuta ikus dezakegu ontzia, brankako bi *esprinekin* eta hiru zeharrekorekin.

5. zk. - Ontzi hau, marra-kopurua gorabehera, identifikatzeko zaila da. Berriz ere ketxemarina edo patatxa izan liteke, sumatu ahal zaizkion hiru masten arabera, baina iraun duten lerroen kalitateak ez digu zehazteko aukerarik ematen. Aurrekoetan bezala, ontzia gutxienez popako luze baten bitartez lotuta dago. Era berean, ikusgai dauzkagu luzetarako egitura-lerroak edo kroskoaren flotazio-lerroa.

Azkenik, beste grafito multzo bat dugu, itsasontzien grabatuen saiakuntza gisa har litekeena. 9., 11., 12., 18., 21., 22., 23., eta 24. zenbakiak dira. 12. zenbakia izan ezik (pailebot edo ketxemarin bat dirudi), xehetasun handirik gabeko ebaki hutsak dira gainerakoak.

Grafitoei azterketa nautikoa egitearen ondorio moduan, azpimarratzekoa da ketxemarin ugaritasun nabaria, beste itsasontzi-tipologia batzuekin alderatuta. Hori ez da salbuespena, garai hartan itsasontzi mota hori erabiltzen baitzen gehien minerala garraiatzeko, ibai-eragiketarako egin beharreko kabotaje-nabigazioetan.

Beste elementu aipagarri bat da grafitoen egileek atean zizelkatu zituztela, hain zuzen itsasontziak karga-kaietara lotuta zeudenean, eta hori nabarmendu nahi izan dute une oro, itsasontzi gehienek argi eta garbi zehaztuta dauden lehorrerako loturak baitauzkate.



Nº 19 - En este quechemarín, de nuevo volvemos a observar la misma configuración que en el nº 15, incluso por la verga volante del palo mayor. Podría tratarse de dos representaciones del mismo barco. De los tres grabados de esta tipología de embarcación, quizás sea el nº 19 el que más fielmente evidencia las líneas del casco, con los ángulos precisos correspondientes a la forma lanzada de su proa y popa. A diferencia del nº 8, en este caso el barco parece amarrado con largos de proa y popa, en vez de *sprines*.

Sea como fuere, los tres barcos son representaciones magníficas de quechemarines de finales del siglo XVIII y comienzos del XIX.

Nº 20 - De tipología indeterminada, quizás se trate de un quechemarín o un pailebote. Cabe destacar la forma de la popa con el alcázar y toldilla. También es interesante resaltar lo que parece ser la representación de la quilla del barco, con especial detalle en la popa.

